OTALARREA ESPERIMENTAZIO FINKAREN LABOREAK ETA INSTALAZIOAK KUDEATZEKO ETA MANTENTZE LANAK EGITEKO, SAIAKUNTZAK EGITEKO, AHOLKULARITZA TEKNIKOA EMATEKO ETA ITURRIETA FINKAN MATERIAL OSASUNTSUA PRESTATZEKO KONTRATAZIOAREN BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA.

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DE LA GESTIÓN Y MANTENIMIENTO DE LOS CULTIVOS E INSTALACIONES DE LA FINCA EXPERIMENTAL DE OTALARREA, LA REALIZACIÓN DE ENSAYOS, EL ASESORAMIENTO TÉCNICO Y LA PREPARACIÓN DE MATERIAL SANO EN FINCA ITURRIETA.

1. AURREKARIAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak sagarra lantzea eta aztertzea sustatzen du, baita sagardoa egitea ere. 1982an, Aldundiak pomologia sustatzeko programa bat ezarri zuen, eta horren ondorioz, Euskal Herriko sagardo barietateen mintegi bat sortu zuen; aldi berean, sagardotarako sagarrondoak landatzeko laguntza plan bat ezarri zuen, oraindik ere irauten duena.

Lurralde Oreka Berdeko Departamentuko Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzuaren helburuetako bat da Gipuzkoan ekoitzitako sagardoa lurraldeko sagardotarako sagardo barietateekin egitea, sagardoaren kalitatea hobetzeko eta nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategiak errentagarriago egiteko, ustiategiak ez uzteko eta gazteak sektorean sartzea lortzeko.

Otalarrea finka esperimentala Villabonako Udalaren jabetzakoa da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari laga zitzaion 2013ko ekainaren 5ean, 5,15 ha-ko azalerarekin. Gipuzkoako erreferentzia zentroa izatea du helburu, Gipuzkoako sagardotarako sagarrondo autoktonoen barietateak kontserbatzeko eta frutagintzako landaketa esperimental bat garatzeko.

2.- KONTRATUAREN OBJEKTUA

Kontratuaren xedea da:

1.- ANTECEDENTES

La Diputación Foral de Gipuzkoa apoya el cultivo y el estudio de la manzana, así como el de la elaboración de la sidra. En el año 1982 la Diputación estableció un programa de Fomento de la Pomología fruto del cual creó un vivero de variedades de manzana del País y al mismo tiempo estableció un plan de ayudas a las plantaciones de manzanos de sidra que todavía perdura.

Uno de los objetivos de la Servicio de Promoción y Sanidad Agro-Ganadera del Departamento de Equilibrio Territorial Verde es lograr que la sidra producida en Gipuzkoa se elabore con las variedades de manzana de sidra propias del territorio, para mejorar la calidad de la sidra y hacer más rentables las explotaciones agro-ganaderas, evitando su abandono y logrando la incorporación de jóvenes al sector.

La finca experimental de Otalarrea, una finca propiedad del Ayuntamiento de Villabona, cedida a la Diputación Foral de Gipuzkoa el 5 de junio de 2013, de 5,15 ha de superficie, tiene como propósito ser un centro de referencia a nivel de Gipuzkoa donde se conserven las variedades autóctonas de manzano de sidra de Gipuzkoa y se desarrolle una plantación experimental frutícola.

2.- OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del contrato es:

- Otalarrea finka esperimentaren laboreak eta instalazioak kudeatzeko eta mantentzeko zerbitzua; sagastia, sarbideak, azpiegiturak eta jarraian deskribatutako beste batzuk.
- Esperimentazio lanak garatzea aurrerapen zientifiko-teknikoak sartzeko eta egokitzeko, sagar barietate desberdinetako laboreen eta eraldaketa industriaren kalitatea eta errendimendua hobetze aldera. Ekoizpen sektorean eskuratutako ezagutzen inguruko aholkularitza eta zabalkundea.
- Sagarrondoak mantentzeko aholkularitza eta Gipuzkoako sagarrondo autoktonoen barietate nagusietatik lortutako ugalketarako material osasuntsua prestatzea. Barietate horiek Arabako Iturrieta finkan landatu dira.

3.- FINKAREN EZAUGARRI TEKNIKOAK ETA DESKRIBAPENA

Agirian honako lan hauek sartzen dira:

- Ongarritzea
- Tratamendu fitosanitarioak
- Landare estaldura mantentzea eta sasiak kentzea
- Uzta partziala
- Inausketa
- Eragiketak berdean, bakantzea
- Aholkularitza teknikoa eta saiakuntzak egitea.
- Landaketa berrikusteko lanak eta azpiegituren mantentze lanak
- Baratzeak, berotegiak, ertzak eta abar garbitzeko lanak.
- Bestelako lanak

Lanak egingo dira Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Berdeko Departamentuko Nekazaritza eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzuko teknikariek eskatuta, eta aipatutako teknikariek kontrolatuko dute haien sekuentzia.

- Servicio de gestión y mantenimiento de los cultivos e instalaciones de la Finca experimental de Otalarrea; manzanal, accesos, infraestructuras y otros descritos a continuación.
- Desarrollar trabajos de experimentación para introducir y adaptar los avances científico-técnicos de cara a mejorar la calidad y los rendimientos de los cultivos de las distintas variedades de manzana y la industria transformadora. Asesoramiento y divulgación de los conocimientos adquiridos entre el sector productor.
- Asesoramiento para el mantenimiento de los manzanos y preparación de material sano para multiplicación obtenido de las principales variedades autóctonas de manzano de Gipuzkoa, plantadas en la finca Iturrieta de Álava.

3.- CARACTERÍSTICAS TÉCNICAS Y DESCRIPCIÓN DE LA FINCA

Los trabajos que comprende el pliego son los siguientes:

- Abonado
- Tratamientos fitosanitarios
- Mantenimiento de la cubierta vegetal y desbroces
- Cosecha parcial
- Poda
- Operaciones en verde, aclareo
- Asesoramiento técnico y realización de ensayos.
- Labores de revisión de la plantación y mantenimiento de infraestructuras
- Trabajos de limpieza de huerta e invernadero, bordes, etc.
- Otras labores

Los trabajos se realizarán a requerimiento del personal técnico del Servicio de Promoción y Sanidad Agro-Ganadera del Departamento de Equilibrio Territorial Verde de la Diputación Foral de Gipuzkoa y su secuencia será controlada por el personal técnico antes mencionado.

Finka hainbat zatitan banatuta dago, eta horien ezaugarriak I. eranskinean adierazten dira.

4.- ENPRESA ADJUDIKAZIODUNAREN ESKU JARRITAKO BALIABIDE MATERIALAK

Aldundiak honako baliabide material hauek jarriko ditu enpresa adjudikaziodunaren esku, finkan egin beharreko lanetarako:

- New Holland T4.95 f 4WD traktorea
- Sasiak garbitzeko makina: Vogel Noot TSA/P250
- Fila arteko sega-makina: Fischer SL3-FT-200-250

Lehen adierazitako makineriaren erabilera eta mantentze gastuak, adjudikaziodunak ordainduko ditu, eta hura arduratuko da, erabiltzen ari direnean, haiek behar bezala mantentzeaz.

Bestalde, enpresa adjudikaziodunak konpromisoa hartzen du erabilitako makineriaren segurtasunari eta osasunari buruz indarrean dagoen legeria betetzeko, eta, bereziki, honako hauek:

- Tresneria segurtasunez erabiltzeko jarraibideak ezagutzea.
- Ez manipulatzea edo kentzea ekipoaren ezein zati, baldin eta ekipoaren funtzioetan eta, batez ere, babes eta segurtasun sistemetan eragina izan badezake.
- Ekipoa modu seguruan garraiatu, zaindu eta biltegiratzea.
- Ez aplikatzea pinturarik, ez itsasgarririk.
- Ekipoa ez erabiltzea Otalarrea finkako barrutitik kanpo.
- Makinen edo ekipoen erabilerarekin lotutako istripurik edo gorabeherarik gertatuz gero, berehala jakinaraztea Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzuari.
- Ekipoaren funtzionamenduan anomaliaren bat hautematen bada, eta

La finca está dividida en varias partes, cuyas características se indican en el Anexo I.

4.- MEDIOS MATERIALES DISPONIBLES PARA LA EMPRESA ADJUDICATARIA

La Diputación pone a disposición de la empresa adjudicataria los siguientes medios materiales para las labores a realizar en la finca:

- Tractor New Holland T4.95 F 4WD
- Desbrozadora: Vogel Noot TSA/P250
- Segadora interfilas: Fischer SL3-FT-200-250

Los gastos de uso y mantenimiento, correrán a cargo del adjudicatario, que será responsable de su correcto mantenimiento durante su utilización.

Por su parte, la empresa adjudicataria se compromete a cumplir la legislación vigente en relación a la seguridad y salud del uso de la maquinaria dispuesta y, en particular, a:

- Conocer las instrucciones de uso seguro del equipo.
- No manipular ni retirar ninguna parte del equipo que pudiera afectar a las funciones para las que está diseñado y, fundamentalmente, a los sistemas de protección y seguridad.
- Transportar, custodiar y almacenar el equipo de modo seguro.
- No aplicar pinturas, ni adhesivos.
- No utilizar el equipo fuera del Recinto de la finca de Otalarrea.
- Comunicar inmediatamente al Servicio de Promoción y Sanidad Agro-Ganadera de la Diputación Foral de Gipuzkoa cualquier accidente o incidente que pudiera ocurrir relacionado con el uso de las máquinas o equipos.
- No utilizar el equipo en el caso de observar cualquier anomalía en su funcionamiento que pudiera comprometer la seguridad de los

anomalia horrek erabiltzaileen segurtasuna arriskuan jar badezake, ekipoa ez erabiltzea.
- Ekipoa hirugarren enpresa edo pertsonei ez lagatzea.

usuarios.
- No ceder el equipo a terceras empresas o personas.

5.- EGIN BEHARREKO LANEN DESKRIBAPENA

Oinarrizko premisa gisa, lursailean lan desberdinak egin ahal izateko, lurzoruaren sasoi egokia errespetatuko da.

Ongarritzea

Lurzoruaren ongarritze mineralaren helburua da lurzoruan elementu mineralen eduki egokia mantentzea, asimilagarritasun baldintzetan, landareak behar den unean eta beharrezko kantitateetan xurgatu ahal izan ditzan.

Ongarritze lana azaleko ongarritze bat ematean datza, egiten den urteko analitikaren emaitzen arabera, eta erauzketen araberakoa izango da.

Lan hori traktoreari esekitako ongarritzeko makinarekin egingo da. Medeagarri organiko bat egin behar bada (materia organikoaren gutxieneko maila % 2tik behera dagoenean), ongarri organikoa zabaltzearengatik 360 €/ha + BEZa ordainduko zaio esleipendunari.

Tratamendu fitosanitarioak

Sagastia babesteko jarduketak erabakigarriak dira uzta ondo biltzeko eta landaketa mantentzeko. Sagastia eta ekoizpena babestu behar dira, ingurumena eta kontsumitzaileen osasuna errespetatuz.

Gure ustiategian izurri nagusien jarraipena egingo dugu, landaketa bisitatuz. Izurritearen garrantzia zehaztu ondoren, eta atalase ekonomikoa kontuan hartuta, tratamendu egokia egingo den ala ez erabakiko da. Horrela, arazo gutxiko urteetan tratamenduen kopurua murriztu ahal izango dugu, ekoizpenaren

5.- DESCRIPCIÓN DE LOS TRABAJOS A PRESTAR

Como premisa básica, para acceder a la finca a realizar las distintas labores se respetará el adecuado tempero del suelo.

Abonado

La fertilización mineral del suelo tiene como objetivo mantener en el suelo un contenido adecuado de elementos minerales, en condiciones de asimilabilidad, para que la planta pueda absorberlos en el momento preciso y en las cantidades necesarias.

La labor de abonado consistirá en el aporte de un abono de cobertera a razón de los resultados de la analítica anual que se efectúe, y que dependerá de las extracciones.

Dicha labor se efectuará con abonadora suspendida a tractor. En caso de que haya que efectuar una enmienda orgánica (cuando el nivel mínimo de materia orgánica baje del 2%), se abonará a la empresa adjudicataria 360 €/ha + IVA por extender el abono orgánico.

Tratamientos fitosanitarios

Las operaciones de protección del manzanal son determinantes para la producción de una buena cosecha y mantenimiento de la plantación. Se debe proteger tanto el manzanal como su producción respetando el medio ambiente y la salud de los consumidores.

En nuestra explotación nos ajustaremos a un seguimiento de las principales plagas mediante visitas a la plantación. Una vez determinada la importancia de la plaga, y teniendo en cuenta el umbral económico, se decidirá la realización o no del tratamiento oportuno. De este modo podremos disminuir el número de tratamientos

kostua murriztuz eta ingurumenean eragin txikiagoa izanez.

en años poco problemáticos, disminuyendo el coste de la producción e impactando en menor medida sobre el medio ambiente.

Laborearen osasun egoera egokiari eusteko, 8 tratamendu fitosanitario aurreikusten dira sagarrondoaren aldi begetatiboan. Tratamendu horiek atomizagailuekin edo ondo erregulatutako berariazko makineriarekin egingo dira, jitoaren aurkako pitak dituztela, laborea ondo bustiz eta dosifikazioa eta likidoak landaketaren egoera begetatibora egokituz. Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzuko teknikariekin adostuko dira erabili beharreko gai aktiboak, baita horiek tratatzeko unea eta maiztasuna ere.

Para mantener el adecuado estado sanitario del cultivo se prevén 8 tratamientos fitosanitarios durante el periodo vegetativo del manzanal. Dichos tratamientos se efectuarán con atomizadores o maquinaria específica bien regulada, equipados con boquillas anti deriva, mojando bien el cultivo y adaptando la dosificación y los caldos al estado vegetativo de la plantación. Las materias activas a utilizar, así como el momento de tratamiento y periodicidad se consensuarán con los servicios técnicos del Servicio de Promoción y Sanidad Agro-Ganadera

Landare estaldura mantentzea eta sasiak kentzea

Mantenimiento de la cubierta vegetal y desbroces

Gure lursaileko lurzorua mantentzeko, sistema misto bat aukeratu da. Horretarako, lurzatiko lurzorua mantentzeko, lerro arteko belar mozketa erabiliko da; lerroetan, berriz, "laborerik ez" erabiliko da. Belarra mozteko, segatzeko/birrintzeko makina duen traktorea erabiliko da, eta, "laborerik ez" denerako, lerro arteko sega-makina duen traktorea eta/edo sasia mozteko esku makina erabiliko da. Mantentze metodo bakoitzaren proportzioa, gutxi gorabehera, honako hau da: bi heren sega bidez, eta heren bat, berriz, "laborerik ez" metodoarekin.

Para el mantenimiento del suelo de nuestra parcela se ha elegido un sistema mixto, empleando el corte de hierba entre líneas para mantener el suelo de la parcela, y empleando “no cultivo” en las líneas. Para el corte de la hierba se empleará tractor con segadora-trituradora y para el “no cultivo”, se empleará tractor con segadora interfilas y/o desbrozadora manual. La proporción aproximada de cada método de mantenimiento es de dos tercios mediante siega y un tercio mediante “no cultivo”.

Lana izango da belarra moztea finkaren azalera osoan. Guztira 5 belar mozketa aurreikusten dira. Belar mozketetan, baldintza hauek bete beharko dira:

El trabajo consistirá en cortar la hierba en la totalidad de la superficie de la finca. Se prevén 5 cortes en total. Los cortes se realizarán cumpliendo los siguientes condicionantes:

- Belar mozketak adierazitako aldizkakotasunarekin egingo dira, belar garapenak hala eskatzen badu.
- Los cortes de hierba se realizarán con la periodicidad indicada, si así lo exige el desarrollo de la hierba.
- Maldak aukera ematen duen lekuetan, sega makina – mailudun birringailua erabiliko da (ez da belarra jaso behar); malda handiko lekuetan, berriz, sasia mozteko esku makina (belarra ahalik eta gehien zatikatu
- Se utilizará una segadora – trituradora de martillos (sin necesidad de retirar la hierba cortada) en las zonas cuya pendiente lo admita y una desbrozadora manual (troceando lo máximo posible la hierba) en

behar da).

- 5 belar mozketa kalkulatzen dira. Mozketa gehiago egin behar baldin badira, mozketa gehigarri bakoitzeko 600 € + BEZa ordainduko zaio enpresa adjudikaziodunari.

Uzta partziala

Uztaren data finkako zuzendaritza teknikoarekin zehaztu eta adostuko da, eta, horretarako, hainbat parametroren aldizkako kontrola egin behar da, eta, azkenik, estimazio bat egin behar da, ahal bada epe laburrean, erabakirik egokiena hartzeko.

Uzta eskuz egingo da, zuhaitzetik bertatik, baina ez da baztertzen uzta mekanizatua eta lurretik. Mailaka egin beharreko eragiketa da. Barietate bereizien arabera egitea ere komeni da. Urtean 3.000 kg sagar biltzea aurreikusten da Fraisoroko upategian egiten den urteko esperimentaziorako.

Uztatutako sagarra kutxetan utziko da (berariazkoak eta Aldundiak emandakoak); kutxek 20 kg sagar izan ditzakete gehienez. Kutxetan biltzearen helburua da ekoizpenak ahalik eta isuraldatze gutxien izatea, eta, beraz, kalterik ez eragitea eta upeltegira ahalik eta egoera onenean iristea.

Azkenik, uztatutako sagarra Fraisoroko upategira eramango da.

Enpresa esleipendunak Fraisoro upeltegian urtero egiten den esperimentaziorako erabiliko ez den sagarra kenduko du.

Inausketa

Lehenengo urteetan (landarea ekoizpenean sartu arte) eraketako inausketa bat egingo da, enborra eta besoak ezarriz.

las zonas de elevada pendiente.

- Se calculan 5 cortes de hierba. En caso de que fuese necesario realizar algún corte más, cada corte adicional se abonará a la empresa adjudicataria a razón de 600 € + IVA.

Cosecha parcial

La fecha de cosecha se determinará y consensuará con la dirección técnica de la Finca y para ello hay que hacer un control periódico de diversos parámetros y finalmente realizar una estimación, preferiblemente a corto plazo, con el fin de tomar la decisión más acertada.

La cosecha será manual, y desde el propio árbol, aunque no se descarta la mecanizada y desde el suelo. Es una operación que debe realizarse escalonadamente. También es conveniente realizarla por variedades separadas. Se prevé una recogida anual de 3.000 kg de manzana para su uso en experimentación en la bodega de Fraisoro.

La manzana cosechada se depositará en cajas (específicas y suministradas por la Diputación); éstas pueden contener hasta 20 Kg. de manzana. La finalidad de esta recolección en cajas es que la producción sufra los mínimos trasvases posibles, y por lo tanto no resulte dañada y llegue a la bodega en el mejor estado posible.

Finalmente, la manzana cosechada será transportada a la bodega de Fraisoro.

La empresa adjudicataria deberá retirar la manzana que no se vaya a utilizar en la experimentación anual que se realice en la bodega Fraisoro.

Poda

Los primeros años (hasta que la planta entre en producción) se realizará una poda de formación con el establecimiento del tronco y de los brazos.
Posteriormente se hará una poda anual o de

Ondoren, urteko inausketa edo fruktifikazio inausketa egingo da, fruktifikazioa eta landaredia harmonizatzeko, landarearen indarraren arabera, eta orekari eusteko.

Aplikatu beharreko inausketa mota inausi beharreko eremuaren eta landaketaren bilakaeraren arabera zehaztuko da. Inausketa honela egingo da:

- Esperimentazio-eremua: Eraketarako, mantenimendurako eta fruktifikaziorako inausketak egingo dira, momentuko landaketa sistemara egokituta.

- Barietateen bildumaren eremua: Landatutako sistemari beharrezko inausketak egingo zaizkio, iraupen luzekoa izan dadin.

Inausketa, hasiera batean, atsedenaldi begetatibo osoan zehar egin daiteke, hau da, hostoak erortzen direnetik zuntza galtze aurreko azken astera arte, udaberriko izozteen arabera, zeinak saihestu egin behar baitira; sagarrondoa abenduan, urtarrilean edo otsailean inausten da. Aldi horretan, inausketak landareei erreserba gutxiago kentzen dizkie.

Atal honetan, enborrak eta adarrak zurkaizteko eta lotzeko lanak sartzen dira.

Hala ere, gidatze sistema batzuetan ez dira baztertu behar beste jarduketa batzuk, hala nola udako kimaketak, aurreko inausketak eta uzta bildu aurrekoak.

Lan hori egin ondoren, lurzatiko inausketa egurra kendu egingo da.

Eragiketak berdean, bakantzea

Berdean egindako eragiketek hostoen, lorearen eta fruituaren kudeaketa ezartzen dute, eta honako hauek aldatzeko aukera ematen duten tekniken multzoa dira:

- Landarediaren eta ekoizpenaren arteko

fructificación, para armonizar la fructificación y la vegetación en función del vigor de la planta y para mantener el equilibrio.

El tipo de poda a aplicar se determinará en función de la zona a podar y de la evolución de la plantación. La poda se hará:

- Zona de experimentación: Se efectuarán las podas de formación, mantenimiento y fructificación adaptadas a sistema de formación vigente en ese momento.

- Zona de colección de variedades: Se efectuarán las podas necesarias al sistema de formación plantado que permita una larga duración.

La poda, en principio, puede hacerse durante todo el período de reposo vegetativo, es decir, desde la caída de las hojas hasta la última semana anterior al desborre, dependiendo de las heladas primaverales, que hay que evitar; la poda del manzano se hace normalmente en diciembre, enero o febrero. Es, durante este periodo, cuando la poda resta a la planta menos reservas.
Se incluyen en este apartado las labores de entutorado y atado de troncos y ramas.

No obstante, en algunos sistemas de conducción no deben descartarse las actuaciones de poda en verde, pre-podas y pre-cosecha.

Una vez efectuada dicha labor, se eliminará la madera de poda de la parcela.

Operaciones en verde, aclareo

Las operaciones en verde establecen la gestión del follaje, de la flor y del fruto, y son el conjunto de técnicas que permiten modificar:

- El equilibrio entre vegetación y producción.
- La posición y el número de hojas y frutos.

oreka.
- Hosto eta fruituen kokapena eta kopurua.
- Baldintza mikroklimatikoak.

Teknika horiek hainbat helburutarako erabil daitezke:

- Kalitatea eta/edo errendimendua handitzea.
- Urtabezkotasunaren aurka borrokatzea
- Osasun egoera onean egotea.
- Beste teknika kultural batzuk gauzatzea erraztea.

Jarraian, uzta berdean egitea aurreikusten diren eragiketa batzuen eskema azaltzen da:

- Bakantzea. Loreak eta/edo fruituak ezabatzean datza. Loraldian edo ondorengo egunetan egiten da, fruitua mamitu ondoren (20 mm-tik beherako tamainarekin). Helburua da gainerako fruituak behar bezala loditzen laguntzea, landarea ez ahultzea eta hurrengo urtean loraldi egokia lortzea. Eskuz eta mekanikoki egin daiteke, eta batez ere esperimentazio eremuan egin behar da.

- Inausketa berdean: Batez ere fruta hesian sisteman aplikatzen da. 50 cm-ko horma-zabalera duen landaredi pantaila bat lortu nahi da. Mekanikoki egiten da, mozketak traktoreari lotutako lanabes espezifiko batekin eginez. Urtean 2 aldiz egin daiteke.

- Uzta berdean egindako ekintzak gainerako gidatze sistemetan ere egin behar dira, landarediaren eta ekoizpenaren arteko oreka egokia bilatuz. Eskuz egin behar da, urtean 2 aldiz.

Aholkularitza teknikoa eta saiakuntzak egitea.

- Las condiciones microclimáticas.

Estas técnicas pueden ser usadas con diferentes fines:

- Aumentar la calidad y/o el rendimiento.
- Luchar contra la vecería
- Mantener un correcto estado sanitario.
- Facilitar la ejecución de otras técnicas culturales.

A continuación, se expone el esquema de algunas de las operaciones en verde que se prevén realizar en la Finca:

- Aclareo. Consiste en la eliminación de flores y/o frutos. Se realiza en la floración o en los días posteriores, una vez cuajado el fruto (con tamaño inferior a 20 mm) puesto que lo que se pretende es favorecer el correcto engrosamiento de los frutos restantes, así como evitar el debilitamiento de la planta y una correcta floración del año siguiente. Se puede hacer manualmente y mecánicamente, y corresponde principalmente a la zona de experimentación.

- Poda en verde: Se aplica mayormente en el sistema de conducción del muro frutal. Consiste en lograr una pantalla de vegetación con un ancho de muro de 50 cm. Se hace mecánicamente realizando los cortes con un apero específico enganchado al tractor. Se pueden realizar 2 pases al año.

- Las acciones en verde también deben realizarse en los demás sistemas de conducción buscando un correcto equilibrio entre vegetación y producción. Se debe hacer manualmente con 2 pases anuales.

Asesoramiento técnico y elaboración de ensayos.

Aholkularitza teknikoko eta saiakuntzak egiteko lanak honako hauek dira:

- Tratamendu guztiak jasotzen dituen landa koadernoa betetzea.
- Lanen hileko parte bat betetzea, hilabetean zehar egindako lanekin. Azpiegituretan eta instalazioetan ikusi diren kalteak zehaztuko dira. Bertan, izurriteen eta gaixotasunen begi ikuskapenaren emaitzak ere sartuko dira, baita orkatzek, untxiek, karraskariek eta abarrek eragin ditzaketen kalteena ere. Parte hori Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzuko teknikariari emango zaio, zeinak lizitazioaren xede diren lanak zuzenduko baititu.
- Sektorearen eskariei erantzunez, saiakerak diseinatu eta gauzatuko dira: barietateak, prestakuntza sistemak, mantentze lanak, kalitate parametroak, etab. Urtero egin beharreko saiakera programa aurreko urteko irailean aurkeztuko da, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako Sustapen eta Osasun Zerbitzuak onar dezan.
- Programak, gutxienez, memoria tekniko bat izango du, saiakuntzaren xedea, zereginak eta gauzatze aldia deskribatuko dituena; baita memoria ekonomiko bat ere.
- Entseguetan lortutako emaitzak sektorean zabaltzeko ekintzak egitea.

Los trabajos de asesoramiento técnico y elaboración de ensayos consisten en:

- Cumplimentar el cuaderno de campo donde se indiquen todos los tratamientos.
- Cumplimentar un parte de trabajo mensual, especificando los trabajos realizados durante el mes. Se especificarán los desperfectos que se han observado en las infraestructuras e instalaciones. En él, se incluirán también los resultados de la inspección ocular de plagas y enfermedades, así como de posible presencia de daños por corzos, conejos, roedores, etc. Este parte se entregará al técnico de la Servicio de Promoción y Sanidad Agro-Ganadera que dirija los trabajos objeto de licitación.
- Atendiendo a las demandas del sector, se diseñarán y ejecutarán ensayos de: variedades, sistemas de formación, mantenimiento, parámetros de calidad, etc. El programa de ensayos a ejecutar anualmente se presentará en el mes de septiembre del año precedente a su ejecución para su aprobación por parte del Servicio de Promoción y Sanidad Agro-Ganadera. El programa constará, al menos, de una memoria técnica, en la que se describirá el objeto del ensayo, las tareas y el periodo de ejecución; así como de una memoria económica.
- Realizar acciones de divulgación, en el sector, de los resultados obtenidos en los ensayos.

Iturrietako etxaldea

Arabako Iturrieta finkan, Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoako sagardotarako sagarrondo barietate autoktono nagusien ama-landareen plantazio bat du. Landare horiek mantentzearen helburua da baimendutako mintegietan ugaltzea ahalbidetuko duen material osasuntsua lortzeko balio izatea.

Finca Iturrieta

En la finca Iturrieta de Álava, la Diputación Foral de Gipuzkoa dispone de una plantación de plantas madre de las principales variedades autóctonas de manzano de sidra de Gipuzkoa. El mantenimiento de estas plantas tiene por objetivo que estas sirvan para la obtención de material sano que permita su multiplicación en

Kontratu honen adjudikaziodunaren zeregina izango da:

- Iturrieta finkaren kudeaketaren arduradunei aholkularitza teknikoa ematea sagarrondoak mantentzeko
- Zuhaitzen eraketa eta eroapena zuhaitzek behar dutenean
- Ugalketarako materiala prestatu.

Horretarako, beharrezkoa izango da Iturrietako finkara joan-etorriak egitea (helbidea: Entzia Partzuegoa, 2. Poligonoa, Araba).

Larrialdiren bat gertatuz gero, enpresa adjudikaziodunak nahitaez joan beharko du Iturrieta finkara, baita jaieguna bada ere.

Urtea amaitzean, eta azken faktura aurkeztu aurretik, adjudikaziodunak txosten zehatza edo urteko memoria aurkeztuko du, honako hauek adieraziz:

- Egindako jarduketak eta jarduerak, baita lortutako emaitzak ere.
- Egindako gastuen justifikazioa, fakturen kopiekin batera.
- Hurrengo urtean egin beharreko jardueren proiektua eta horren aurrekontu xehatua (aholkularitza teknikoa barne).

Bestelako lanak

Lan horien artean, honako hauek sartzen dira:

- Landaketa, etxebizitza, biltegia, berotegia, ur-biltegia, koadro elektrikoak eta abar

viveros autorizados. Será tarea del adjudicatario del presente contrato:

- el asesoramiento técnico a los responsables de la gestión de la finca Iturrieta para el mantenimiento de los manzanos,
- la formación y conducción de los árboles cuando estos lo precisen,
- la preparación de material para multiplicación.

Para ello será necesario hacer desplazamientos a la finca Iturrieta (Parzonería de Entzia, Polígono 2, Álava).

En caso de producirse alguna urgencia, la empresa adjudicataria estará obligada a acudir a la finca Iturrieta, incluso en días festivos.

Al concluir el año, y antes de presentar la factura final, el adjudicatario presentará un informe detallado o memoria anual donde se reflejen:

- Las diversas actuaciones y actividades llevadas a cabo, así como los resultados obtenidos.
- Justificación de gastos efectuados con aportación de copias de las facturas.
- Proyecto de actividades a realizar en el siguiente año y presupuesto detallado del mismo (que incluya el asesoramiento técnico).

Otras labores

Dentro de estas labores se incluyen:

- La revisión de la plantación, de la vivienda, almacén, invernadero, depósito de agua, cuadros eléctricos, etc. con una periodicidad de 1 día por semana.

astean behin berrikustea.

- Azpiegiturak mantentzea (hesiak, landare-sareak, sarbideak, drainatze-zerrendak, finkako ezpondak, etab.).

- Finkarako sarbidearen ertzak eta ezpondak eta hesiaren kanpoaldea kontserbazio-egoera egokian mantentzea, urtean gutxienez 2 garbiketa eginez.

- El mantenimiento de las infraestructuras en caso necesario (cercado, espaldera, accesos, franjas de drenaje y taludes de la finca, etc.).

- Mantener en un correcto estado de conservación los márgenes y taludes del acceso a la finca, así como la parte externa del cercado, haciendo un mínimo de 2 limpiezas anuales.

6.- SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Zerbitzua esleitu ondoren, adjudikaziodunak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu:

- Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat egin beharreko lanen prebentzio plangintza.
- Aukeratutako prebentzio antolaketaren modalitatea. Enpresaz kanpoko prebentzio zerbitzuaren kasuan, erantsi behar da PREBENTZIO ZERBITZUAREKIN 4 espezialitateetarako (Segurtasuna, Higienea, Ergonomia eta Osasunaren Zaintza) sinatutako kontratuaren kopia eta ordainagiria edo gaur egun indarrean dagoela adierazten duen ziurtagiria (urtero aurkeztu beharrekoa).
- Norbera babesteko ekipamenduak (NBE) langileei entregatu izanaren erregistroen kopiak (hasieran, eta langileak, makinak edo lan baldintzak aldatzen diren guztietan).
- Lana egingo duten langileen gaitasun medikoen kopia.
- Langileei beren lanpostuko segurtasun gaietan emandako informazioaren frogagirien kopia, arriskuei eta egiaztatzen duena larrialdi neurriei buruzko informazioa jaso dutela (hasieran eta langileak, ekipoak edo lan baldintzak edo langilea aldatzen diren guztietan).
- Prebentzio arloko langileen prestakuntza tituluak

6.- SEGURIDAD Y SALUD

Una vez realizada la adjudicación del servicio, la adjudicataria deberá presentar la siguiente documentación:

- Planificación preventiva de los trabajos a realizar para Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Modalidad de Organización Preventiva adoptada. En caso de servicio de prevención ajeno adjuntar copia del contrato con el SERVICIO DE PREVENCION con las 4 especialidades (Seguridad, Higiene, Ergonomía y Vigilancia de la Salud) y recibo de pago o certificado en el que se refleje que actualmente está en vigor (a entregar anualmente).
- Copias de los registros de entrega de Equipos de Protección Individual (EPI) a sus trabajadores (inicial y siempre que cambie de personal, la maquinaria o las condiciones de trabajo o del trabajador).
- Copia de aptitudes médicas del personal que va a realizar el trabajo.
- Copia de los justificantes de información dada a los trabajadores en temas de seguridad en su puesto de trabajo de haber sido informados de los riesgos y medidas de emergencia (inicial y siempre que cambie de personal, los equipos o las condiciones de trabajo o del trabajador).
- Títulos de formación en materia preventiva de los trabajadores

I. ERANSKINA / ANEXO I

FINKAREN DESKRIBAPENA

1.- SARRERA

Otalarrea lursail esperimentalak 5,15 ha ditu guztira, 4 eremu nagusitan banatuta:

- Esperimentazio eremua.
- Barietateen bilduma eremua
- Berotegia
- Bideak eta beste batzuk (gainerakoak)

Azken orriko taulan eta krokisean eremu bakoitzaren kokapena adierazten da.

Jarraian, eremu bakoitzaren ezaugarri nagusiak adierazten dira.

2.- ESPERIMENTATZEKO GUNEA

Esperimentazio gunean hiru eremu nagusi bereizten dira:

Krokisean "B" markatutako lursailean, 3,5x1,5 m-ko marko baten barruan, Geneva serieko sei sustrai-sorta desberdinetan hesi frutalean landatutako 14 sagar barietate agertzen dira. Barietateak hauek dira: *Gazi Gorri, Geza Miña, Goikoetxea, Manttoni, Merabi, Moko, Mozoloa, Patzolua, Saltxipi, Txalaka, Urtebi haundia, Urtebi txikia, eta Verde Agria*. Geneva 41ean landatutako "Errezila" bilduma ere lursail berean dago 3,5x1,5m-ko marko baten barruan.

Sagardotarako sagarrondoen landaketa fruta hesian (krokisean "A"): MM 106 patroian txertatua, 2 blokez osatua, blokeko 2 errepikapenekin, eta 5 landarerekin unitate esperimental bakoitzeko. Landaketaren markoa

DESCRIPCIÓN DE LA FINCA

1.- INTRODUCCIÓN

La finca experimental de Otalarrea, tiene en su totalidad 5,15 ha, divididas en 4 zonas principales:

- Zona de experimentación.
- Colección de variedades
- Invernadero
- Caminos y otros (el resto)

En la tabla y croquis de la última hoja se indica la ubicación de cada una de las zonas.

A continuación, se indican las características principales de cada una de las zonas.

2.- ZONA DE EXPERIMENTACIÓN

En la zona de experimentación se diferencian tres áreas principales:

En la parcela marcada como "B" en el croquis se localiza la plantación de 14 variedades de manzana para sidra en muro frutal sobre 6 patrones distintos de la Serie Geneva en un marco de 3,5x1,5m. Las variedades son las siguientes: *Gazi Gorri, Geza Miña, Goikoetxea, Manttoni, Merabi, Moko, Mozoloa, Patzolua, Saltxipi, Txalaka, Urtebi haundia, Urtebi txikia* y *Verde Agria.* Sobre la misma parcela se sitúa también la plantación de la colección de "Errezilas" sobre la Geneva 41, en un marco de 3,5x1,5m.

La plantación de manzana para sidra en muro frutal (indicada en el croquis como "A"): injertada sobre pie MM 106, formada por 2 bloques con 2 repeticiones por bloque, y con 5

4x2 metrokoa da. Barietateak honako hauek dira: *Gazi Gorri, Geza Miña, Goikoetxea, Manttoni, Merabi, Moko, Mozoloa, Patzolua, Txalaka, Urtebi haundia, Urtebi txikia* eta *Verde Agria.*

Sagardotarako sagarrondoa intentsiboan landatua (E eremua): M9 patroian txertatuta, ureztatze-sistemarekin. Hainbat formazio-sistematan: ardatz zentralean, fruta hesian, bi ardatzeko fruta hesian … eta barietate hauekin: *Errezila, Gazigorri, Gezamiña, Goikoetxe, Mantoni, Mikatza, Moko, Mozolua, Patzolua, Txalaka, Urdin, Urtebi Txiki, Urtebi Haundi, Verde Agria.*

Mahai-sagarrondoen landaketa (F eremua), *Topaz eta Elstar* barietateekin, 3,5x1,20 m-ko marko batean, M-9 erro-euskarri batean.

Landaketa hauek eboluzionatu ahal izango dute bai beren eraketan, bai landatutako barietateetan, une bakoitzean behar diren esperimentu-beharren arabera.

3.- BARIETATEEN BILDUMA

Landaketa honen helburua da sagardotarako sagarren ahalik eta bertako barietate gehien gordetzea.

Lursailaren hegoaldean, krokisean, "C2" gunean, barietate batzuk gordetzen dira, zeintzuen DNA aztertu baita eta ikusi da genotipo bakarra direla. Landaketa ontzian egin da, MM111 patroian txertatuta, 7 x 7 metroko landaketa esparruan, barietate bakoitzeko hiru zuhaitzekin.

Lursailaren iparraldeko aldean, krokisean "C1" gisa identifikatuta, dagoeneko DNA aztertu zaien eta emaitzek bilduma nagusiko besteekin genotipikoki berdinak direla adierazten duten barietateei dagokien landare-materiala dago. Hala ere, eremu honetan gordetzen dira, fenotipoa desberdina izan daitekeelako.

plantas por unidad experimental. El marco de plantación es de 4x2 metros. Las variedades son las siguientes: *Gazi Gorri, Geza Miña, Goikoetxea, Manttoni, Merabi, Moko, Mozoloa, Patzolua, Txalaka, Urtebi haundia, Urtebi txikia* y *Verde Agria.*

La plantación de manzano para sidra en intensivo (Zona E): injertada sobre pie M9 con sistema de riego. En varios sistemas de formación: eje central, muro frutal, muro frutal en dos ejes… y con las siguientes variedades: *Errezila, Gazigorri, Gezamiña, Goikoetxe, Mantoni, Mikatza, Moko, Mozolua, Patzolua, Txalaka, Urdin, Urtebi Txiki, Urtebi Haundi, Verde Agria*.

Plantacion de manzano de mesa (Zona F) con las variedades *Topaz y Elstar* en un marco de 3,5x1,20 m sobre patrón M-9.

Estas plantaciones podrán ir evolucionando tanto en sus formaciones como en las variedades plantadas en función de las necesidades de experimentación requeridas en cada momento.

3.- COLECCIÓN DE VARIEDADES

El objetivo de esta plantación es conservar el mayor número de variedades de manzana para sidra del país.

En la parte sur de la finca, indicada como "C2" en el croquis, se guardan las variedades cuyo ADN se ha analizado y ha dado como resultado ser genotipo único. Su sistema de formación es en vaso, injertadas sobre patrón MM111, a un marco de plantación de 7x7 metros y con tres árboles por variedad.

En la parte norte de la finca, identificada en el croquis como "C1", se ubica el material vegetal correspondiente a aquellas variedades cuyo ADN ya fue analizado y cuyo resultado indica que son genotípicamente iguales a otras presentes en la colección principal. Sin embargo, se mantienen en esta zona debido a que su fenotipo puede diferir.

Besteak beste, hauek dira gordetako barietateak: *Abalia-Abalegi*, *Aia, Alperro, Ama Birjiña, Andre, Añarregiko gazigozoa, Añarregi, Añarregiko geza, Añarregiko mikatza, Arantzate, Argentina, Arimasagasti, Aritza, Aritza berdea, Astarbe, Azpeiti, Bergarako frailea, Berrondo, Bizkai, Bost kantoi, Bulano, Burni sagarra, Buztin, Errota berri, Frantzes, Gaziloka, Geza karabel, Gezamiña beltza, Gezamin gorria, Hosto beltza, Libra, Maximela, Mendiola, Mikatza, Mikatz gorria, Mokote, Murgil sagarra,Narbarte, Palazio, Pelestiña, Piku sagarra, Potrokillo, Roja temprana, Sagar beltza, Sagastume, Txori sagarra, Txurten luze,Udare, Udare marroi, Udare txuria, Ugarte, Urdan iturri, Urdin, Zuaznabar.*

Bilduma zabaltzeko, urtean zehar hainbat prospekzio egiten dira. Identifikatutako barietate berriak hasierako baratze batean landatzen dira. Baratze hori, Krokisean, "C3" gunean "baratze" gisa markatuta dago. Eremu horrek 30 m-ko 10 lerro ditu, ildoak eratuz, eta, hasieran, txertoak jartzen dira, sustraitu ondoren bildumara igaro ahal izateko.

4.- BEROTEGIA

27,5 x 8 metroko berotegia da, polikarbonatozko xaflez estalia eta alboetan intsektuen kontrako sare batekin eta polikarbonatozko banda batekin babestuta.

Hemen hasierako landareak kokatzen dira, su gorrina eta sagarrondoen fitoplasma edo adar ugaritzea (sorgin erratzak) gaitzetatik libre daudenak, eta, horietatik, ama landareetarako txertoak aterako dira.

Krokisean, zona hori "D" letraren bidez identifikatzen da.

5.- BIDEAK ETA BESTE BATZUK

Finkarako sarbidea ematen duen bidea da; horrez gain, finkaren zatiak bereizten dituzten

Algunas de las variedades guardadas, entre otras, son: *Abalia-Abalegi*, *Aia, Alperro, Ama Birjiña, Andre, Añarregiko gazigozoa, Añarregi, Añarregiko geza, Añarregiko mikatza, Arantzate, Argentina, Arimasagasti, Aritza, Aritza berdea, Astarbe, Azpeiti, Bergarako frailea, Berrondo, Bizkai, Bost kantoi, Bulano, Burni sagarra, Buztin, Errota berri, Frantzes, Gaziloka, Geza karabel, Gezamiña beltza, Gezamin gorria, Hosto beltza, Libra, Maximela, Mendiola, Mikatza, Mikatz gorria, Mokote, Murgil sagarra,Narbarte, Palazio, Pelestiña, Piku sagarra, Potrokillo, Roja temprana, Sagar beltza, Sagastume, Txori sagarra, Txurten luze,Udare, Udare marroi, Udare txuria, Ugarte, Urdan iturri, Urdin, Zuaznabar.*

Para ampliar la colección se realizan diferentes prospecciones a lo largo del año. Las nuevas variedades identificadas se plantan en un huerto inicial que se sitúa en la zona "C3" marcada como "huerta" en el croquis. Se trata de una zona que consta de 10 líneas de 30 m, acaballonadas, donde se instalan inicialmente los injertos para poder pasarlos a la colección una vez enraizados.

4.- INVERNADERO

Se trata de un invernadero de 27,5 x 8 metros, cubierto de placas de policarbonato y laterales de malla antiinsectos con una banda lateral también de policarbonato.

Aquí se ubican las plantas iniciales, libres de fuego bacteriano y fitoplasma o proliferaciónes del manzano (escobas de bruja), que proveen los injertos para la producción de plantas madre.

Esta zona, en el croquis, se identifica mediante la letra "D".

5.- CAMINOS Y OTROS

Se trata del vial que da acceso a la finca, además de los caminos que separan las

bideak daude.

Atal honetan eraikinak eta azpiegiturak sartzen dira.

distintas partes de la misma.

Se incluyen en este apartado los edificios y las infraestructuras.



Krokisean erreferentzia Referencia en el plano	SIGPAC erreferentzia Referencia SIGPAC	Azalera erabilgarria Superficie útil (ha)	Erabilera Uso
A	20.075.002.237.1	0,2500	Esperimentazioa: fruta hesia Experimentación: muro frutal
B	20.075.002.237.1	0,7450	Esperimentazioa: Geneba eta errezilen entseguak
C1	20.075.002.237.1	0,4500	Bildumako errepikapenak M7 Repeticiones de colección M7

C2	20.075.002.237.1	1,6500	Bilduma Colección
C3	20.075.002.237.1	0,0350	Bildumako baratza Huerto de la colección
D	20.075.900.95751.171	0,0220	Berotegia Invernadero
E	20.075.002.237.3	0,3200	M9an Landaketa Plantación en M9
F	20.075.002.237.1	0,2000	Jan sagar landaketa Plantación de Manzana de mesa.
	GUZTIRA	**3,6720**	

Donostia / San Sebastián, 2025ko irailaren 18a.
Donostia / San Sebastián, 18 de septiembre de 2025

SIN./FDO.: Miguel Angel Azpiri Luzar
NEKAZARITZAKO ETA ABELTZAINTZAKO SUSTAPEN ETA OSASUN ZERBITZU BURUA
JEFE DEL SERVICIO DE PROMOCIÓN Y SANIDAD AGRO-GANADERA